

Arlo publikoa

Foru aldundiek zergen bidez bildutako diruak balio negatibotan (%-0,6) amaitu zuen urtea, baina hobekuntza nabarmena erakutsi zuen urte amaieran, zeren eta urria arte metatutako jaitsiera %3,2an kokatua baitzen. Zehatzago adierazita, 2012ko urtarrilean bakarrik, eta hilabete hori ez da bat ere esanguratsua, lortu zuen urte arteko gehikuntza tasa bat diru bilketan. Gainontzeko hileko guztietan 2011koak baino diru kopuru txikiagoak jaso zituen. Oro har, zuzeneko zergek zeharkakoek baino portaera hobea erakutsi zuten.

Zuzeneko zergek, oro har, 2011. urtean baino %1,0 gehiago bildu zuten iaz, PFEZ zergaren diru bilketak gehikuntza txiki bat (%0,2) lortu zuelako eta ondarearen gaineko zerga berriro ezarri zelako, figura horrek 115 milioi euro baino zertxobait gehiago bildu zituelako. PFEZk gora egin zuen araudian aldaketa batzuk egin zirelako eta atzerapenetatik eta kontrol jardueretatik etorri ziren sarrerei esker, baina azken hilekoetan gehikuntza erritmoa moteldu zen, enpleguaren narriadura larriagotu zelako eta administrazio publikoan Gabonetako ordainketa pagatu ez zelako. Beraz, lanaren atxikipenek (%-1,0), zerga horren oinarri behinena baita, lan merkatuaren zailtasunak pairatu zituzten, nahiz eta kuota diferentzial garbiak galera hori konpentsatu zuen.

Zuzeneko zergaren beste osagai nagusiari dagokionez, sozietateen gaineko zergak, aurreko hilekoetan bezala, diru bilketa gutxitu zuen urte amaieran (% 2,5). Enpresen mozkinak gutxitu ziren, ekonomiaren jarduera narriatu zelako, eta araudian onartu ziren dekretu batzuek konturako ordainketak aldatu zituzten. Arrazoi horiek berriro kaltetu zuten zerga horren diru bilketa.

Zeharkako zergei dagokienez, honek ere ekonomia egoeraren gaur eguneko ahultasuna islatu zuen, eta 2012ko amaieran jaso zuen beherakada %3,6ra iritsi zen. Enpleguaren galerak eraginda, familien errenta erabilgarria nabarmen murriztu zen eta horrek kontsumoaren beherakada ekarri zuen berarekin. Horren ondorioz, eta zergaren tipoak igo baziren ere, berton kudeatutako BEZak ez zituen balio negatiboak (%-4,4) atzean utzi. Hala ere, BEZaren doikuntzak jaitsiera orokorra leundu zuen, %-1,4 arte.

Azkenik, zerga bereziek, BEZak ez bezala, %0,9 areagotu zuten diru bilketa, bereziki tabakoaren gaineko zergaren hazkundeari eta argindarraren zergaren igoerari esker. Azken honek goranzko bilakaera erakutsi zuen tarifak igo zirelako, kontsumoa jaitsi zen arren. Kasu horretan, zergaren doikuntzak %-1,6an kokatu zuen zergaren azken emaitza.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2012ko urtariletik abendura)

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2011	2012	Aurrekon %.	12/11 aldak.
PFEZ	4.321.226	4.329.195	97,3	0,2
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	4.448.414	4.404.481	95,6	-1,0
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	217.844	241.769	115,6	11,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	85.191	87.749	98,8	3,0
- Ondare irabazien atxikipenak	14.780	20.110	147,8	36,1
- Profesionalek eta enpresarien ordainketa zatikatuak	154.521	151.589	94,3	-1,9
- Kuota diferentzial garbia	-599.524	-576.503	91,0	3,8
Sozietateen gaineko zerga	1.160.259	1.131.784	99,3	-2,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	217.844	241.769	115,6	11,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	85.191	87.749	98,8	3,0
- Ondare irabazien atxikipenak	14.780	20.110	147,8	36,1
- Kuota diferentzial garbia	842.443	782.157	94,5	-7,2
Zergadun ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	82.099	32.787	42,8	-60,1
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	77.145	89.532	110,1	16,1
Ondarearen gaineko zerga	---	115.490	---	---
Iraungitako zergak	3.432	---	---	---
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	5.644.160	5.698.787	99,2	1,0
BEZaren bertoko kudeaketa	3.099.727	2.962.490	87,5	-4,4
Ondare eskualdaketen gaineko zerga	98.531	79.899	72,8	-18,9
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	58.475	41.308	69,5	-29,4
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	24.753	17.350	70,7	-29,9
Fabrikazio zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.381.046	1.393.919	96,1	0,9
Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gainekoa	48.350	48.567	98,0	0,4
Aseguru sarien gaineko zerga	77.383	73.818	92,6	-4,6
ZEHAZKAKO ZERGAK GUZTIRA	4.788.276	4.617.351	89,5	-3,6
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	110.172	109.708	95,9	-0,4
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	10.542.608	10.425.846	94,6	-1,1
BEZaren doikuntza	997.640	1.075.769	89,2	7,8
Zerga berezien doikuntza	-59.335	-93.391	84,4	-57,4
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	11.480.913	11.408.224	94,2	-0,6

Iturria: Foru Aldundiak.